

Asteburu honetan Tolosan N-I errepidea gauzez itxiko da AT Sistemako arku berria jartzeko



Igandean, irailak 11, 00:00etatik 06:00etara errepidea itxita egongo da bi noranzkoetan.

Asteburu honetan Bidegi foru agentziak AT Sistemako lau arku berrietatik bigarrena jarriko du N-I errepidean, Tolosan. Arkuburua lekuz aldatu eta muntatzeko lanak direla eta, , igandean, irailak 11, 00:00etatik 06:00etara errepidea itxita egongo da bi noranzkoetan. Mozketak 1,3 kilometroko zatiari eragingo dio, Tolosako 433 lotunetik (Tolosa-Azpeitia) 434 (Tolosa, Ibarra, Lizartza) lotunera arte.

Bidegik, ahal den neurrian, puntu horretako joan-etorriak aurreratzea edo atzeratzea gomendatzen du, itxierarekin bat ez etortzeko. Alternatiba gisa, Irungo noranzkoan doazen ibilgailu arinak 433 irteeratik desbideratuko dira Tolosarantz, N-I zaharretik, autobiarra itzultzeko, suhiltzaileen parkeko biribilgunearen parean. Gasteizerantz doazenek 434. irteera erabili beharko dute eta ibilbide bera egin kontrako noranzkoan. Desbideratzeak seinaleztatuta egongo dira. Arabatik edo Nafarroatik Behobiarako noranzkoan datozen astunek Altsasuko lotunean A-10 eta A-15 errepideak aukeratu beharko dituzte Andoaineraino Etzegarate saihestuz. Gipuzkoatik Araba eta Nafarroara doazenek A-15 errepidea hartu beharko dute Andoainen eta ibilbide bera alderantzizko noranzkoan egin. Halaber AP-8 eta AP-1 autobidetik ere zirkulatu dezakete.

Kamioiak mozketa puntuetara hurbiltzen badira inguruan geratu behako dute lanak amaitu eta errepidea berririo zabaldu arte. Itxiera iragarrita egongo da N-I, A-15, AP-8, AP-1, GI-20 eta A-636 errepideen mezularitza aldakorreko paneletan.

Arkuak Etzegaraten, Ordizian, Andoainen, Astigarragan edo Beasainen daudenen ezaugarri berberak izango ditu: ia 30 metroko luzera eta 16 tonatik gorako pisua duen egitura. Matrikulak irakurtzeko eta ibilgailuaren jarraipena egiteko 12 kamera izango



ditu argi infra-gorriarekin, 6 noranzko bakoitzean, eta 12 antena TAGak irakurtzeko eta ibilgailuak kokatzeko, baita 6 noranzko bakoitzean ere. Era berean, 6 laser-detektagailu izango ditu, hiru noranzko bakoitzeko, eta horiek egingo dute ibilgailuak sailkatzeko detekzio bolumentrikoa.

Aurreikuspenen arabera, arku honen ondoren, urriaren erdialdean, Lasarte Oriakoa eraikiko da, hau ere N-I errepidean eta azaroaren amaieran, A-15 autobidean, Belabietakoa jasoko da izen bereko tunelaren parean.

Zarautz, 2022-09-08



Cierre nocturno de la N-I en Tolosa este fin de semana para colocar el nuevo p rtico de AT Sistema



Desde las 00:00h hasta las 06:00h del domingo 11 de septiembre, la carretera estar  cortada en ambas direcciones

La agencia foral Bidegi instalar  este fin de semana en la N-I en Tolosa, el segundo de los cuatro nuevos p rticos de AT Sistema. La operativa del traslado del dintel y su montaje obligar  a cortar la carretera en ambos sentidos desde las 00:00h hasta las 06:00h del domingo 11 de septiembre. El cierre afectar  a un tramo de 1,3 kil metros entre los enlaces 433 (Tolosa-Azpeitia) y 434 (Tolosa-Ibarra-Lizartza).

Bidegi recomienda en la medida de lo posible adelantar o retrasar los desplazamientos por este punto para no coincidir con el cierre. Como alternativa, los veh culos ligeros en sentido Irun ser n desviados por la salida 433 hacia Tolosa por la antigua N-I para volver a reincorporarse a la autov a a la altura de la rotonda del parque de bomberos. Los que se dirijan hacia Vitoria-Gasteiz deber n utilizar la salida 434 y efectuar el mismo recorrido en sentido contrario. Los desv os estar n se nalizados. Los pesados provenientes desde Araba o Navarra direcci n Behobia deber n evitar Etzegarate y en el enlace de Altsasua optar por la A-10 y la A-15 hasta Andoain. Los que vayan desde Gipuzkoa hacia Araba y Navarra deber n coger la A-15 en Andoain y hacer la misma ruta en sentido inverso. Tambi n pueden circular por la autopista AP-8/AP-1.

En el caso de que haya camiones que se acerquen a los puntos de corte ser n retenidos en las inmediaciones hasta que finalicen los trabajos y se habilite el paso. El cierre estar  anunciado en los paneles de mensajer a variable de la N-I, A-15, AP-8, AP-1, GI-20 y A-636.



El p rtico tendr  las mismas caracter sticas que las existentes en Etzegarate, Ordizia, Andoain, Astigarraga o Beasain: Una estructura de casi 30 metros de longitud y un peso total de m s de 16 toneladas. Llevar  12 c maras de lectura de matr culas y seguimiento del veh culo con luz infra-roja, 6 en cada sentido, y 12 antenas para lectura de los TAG y posicionamiento de los veh culos, tambi n 6 en cada sentido. Asimismo, estar  equipado con 6 detectores l ser, tres por sentido que ser n los que realicen la detecci n volum trica para clasificar los veh culos.

Se prev  que tras este p rtico se levante el de Lasarte Oria a mediados de octubre en la N-I y a finales de noviembre la de Belabieta a la altura del t nel de mismo nombre en la autov a A-15.

Zarautz, 2022-09-08